



**31/2002 GOMENDIOA, IRAILAREN 9KOA, GASTEIZKO UDALARI EGINA, UDALAK OSPAKIZUNAK ANTOLATZEN DITUENEAN, ANTOLAKETAK ERAGINDAKO ONDARE-ERANTZUKIZUNA ONARDEZAN.**

**Aurrekariak**

1. Jakina denez, Gasteizen, San Anton egunean, zezen suzko izeneko ospakizuna ospatzen da, Espainiako plazan: su artifizialak jaurtitzen dira, pertsona batek garraiatzen duen jaurtigailu batetik. Ospakizun horren ondoriozko kalteengatik egindako erreklamazio bati udalak eman zion erantzunak sortarazi zuen kexa.
2. 2000ko urtarrilaren 19an, interesdunak administrazioaren ondare erantzukizunagatiko erreklamazioa egin zion udal horri, izan ere, bere ustez, ospakizuna antolatu zuen udalari lepora zekizkiokeen kalteak.
3. Gasteizko udalak zegokion administrazio-espeditentea bideratu zuen, eta, horregatik, Kulturako zuzendariari txosten bat eskatu genion. Hark zioenez, herritarrak hartu behar zuen bere gain sortutako kaltea, arrazoi honengatik: *"los ciudadanos de Vitoria se les supone conocedores de esta tradición tan arraigada, y del pequeño riesgo que asume al ir a presenciar este espectáculo"*.
4. Geroago, udalak erreklamazioa ez onartzea erabaki zuen -2000ko urriaren 31ko Erabakiaren bidez-, bere iritziz ez baitzegoen kausalitate-loturarik udalaren zerbitzu publikoaren jardunaren eta alegatutako kaltearen artean.
5. Ararteko erakundeak azterketa bat helarazi zion Gasteizko udalari, indarreko legeriaren arabera herri-administrazioei eska dakiekeen erantzukizun objektiboaren gainean. Horrela, zera adierazi genion: kaltea leporatu ahal izateko, erantzukizun objektiboak ez duela exijitzen kalte-eragileak jokaera axolagabea izatea, baizik eta nahikoa dela kaltea eragin izana. Kaltearen teoria objektibo horretan, ezin da alegatu herritarrak arrisku bat bereganatzen duela ikuskizun hori ikustera joate hutsagatik, udala baita jarduera hori era egokian burutu dadin beharrezko neurriak hartu behar dituen.
6. Gure idazkiari erantzunez, udalak administrazio-espeditentearen eta 2001eko otsailaren 13ko Erabakiaren kopia igorri dizkigu, erabaki horretan erantzun baitzion ukapenaren kontra kexagileak jarri zuen berraztertze errekurtsoari.



Udalaren aburuz, kexagilearen alegazioek ez dituzte indargabetzen azaldutako gertakariak.

### **Gogoetak**

1. Espediente honen xedea kexagilearen asmoaren oinarri juridikoa aztertzea da. Hark uste du alegatutako kalteak Gasteizko udalari egotz dakizkiokeela, herriko festetan jolas-ekintzak antolatzean sortutako kalteengatik. Aurretiaz, administrazioaren ondare erantzukizuneko araua bere baitan hartzen duen lege esparrua azalduko dugu.

Konstituzioak zera dio 106.2 artikuluan: herritarrek, ezinbesteko egoerak salbuetsiz, beren ondasun eta eskubideetako edozeinetan jasaten duten lesio ororen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutela, betiere lesioa herri-zerbitzuen jardueraren ondorioz gertatu bada.

Araubide hori Konstituzioaren aurreko beste arau batzuetan jasota zetorren jada, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen bidez -azaroaren 26koa- garatu da. Xedapen arautzaile horren arabera, partikularrek beren ondasun eta eskubideetako edozeinetan lesiorik jasanez gero, herri-administrazioetatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dute, ezinbesteko egoerak salbuetsiz, betiere lesioa herri-zerbitzuen ohiko edo ohiz kanpoko jardueraren ondorioz jasan bada.

Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea sortu dela egiaztatu ahal izateko exijitzen diren betekizunak legearen testutik beretik ondorioztatzen dira, baita Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia ugaritik ere.

Hartara, pertsona bati edo pertsona multzo bati begira, banaka eta dirutan ebaluatzeko moduko kaltea edo galera benetan gertatu dela egiaztatu behar da; kexagileak jasandako ondarezko kaltea edo lesioa herri-zerbitzuen ohiko edo ohiz kanpoko jarduerak eragin duela, alegia, jarduera hori izan dela kaltearen kausa edo ondore zuzena, berehalakoa eta eskusiboa, kausazko lotura aldaraz lezakeen elementu arrotzik tartekatu gabe, ezinbesteko arrazoirik gabe; eta kexagileak bere jarrerarengatik bere senez eragindako kalterik jasateko behar juridikorik ez duela. Halaber, beste hau ere exijitzen da: gertakariak jazo zirenetik urtebete igaro delako, erreklamatzeko eskubidea iraungita ez egotea.



Konstituzioak finkatzen duen ondare erantzukizunaren araubidea objektiboa edo emaitzazkoa da, eta ez dauka zerikusirik herri-zerbitzuen jardueran izandako inongo erru edo axolagabekeriaren zein omisioren inolako beharrekin.

Horregatik, administrazioko organoak erreklamazioko eskariaren alde ebatzi beharko du, baldin eta herri-zerbitzuen ohiko edo ohiz kanpoko jardueraren eta eragindako lesioaren artean kausalitate-lotura dagoela egiaztatzen bada.

Herritarrek ez daukate zertan jasan administrazioaren jardueraren ondoriozko lesio edo kalterik. Horregatik sortu zen administrazioen erantzukizuna, Zuzenbide Estatuaren berezko bermeen artean. Izan ere, administrazioaren jarduerak, besteak beste, denen interesa lortzen saiatu behar baitu.

2. Eskuardean dugun kasuan, zera argitu behar da: ea kaltea udalaren zerbitzu publikoen ohiko edo ohiz kanpoko jarduerak eragin zuen, ala, aitzitik, udalari egotzi ezineko beste zio batek.

Egiaztatu diren eta udalak zalantzan jarri ez dituen gertakariei dagokienez, lekuko adierazpenen arabera, zera dakigu: 2000ko urtarrilaren 17an, herrian ikuskizun bat ikusten ari zenean, kexagileari arropan kalteak eragin zizkiola instalazio mugikor batetik ateratako petardo batek.

Kaltea eragin zuten ekitaldi horiek udalak antolatu zituelako egin zaio erreklamazioa udalari.

3. Udalen eginkizunetako bat da baimendutako eta araututako festak antolatzea. Udalaren zeregina da, beraz, ez ekintzak antolatzea bakarrik, baizik eta baita ere antolatzen dituen ospakizunetan eta erabilitako instalazioetan segurtasuna behar bezala zainduko dela ziurtatzea. Horretarako, kontuan izan zer dioen Auzitegi Gorenak 1997ko abenduaren 15eko Epaian (RJ 1997\9357).

Horrela bada, herriko festetan segurtasuna mantentzeko duen betebeharra ez betetzeagatik egotzi zaio kaltea udalari.

Ondare erantzukizunaren izaera objektiboak ez du exijitzen kalte-eragileak jokaera erruduna izatea, nahikoa baita bere jarduerak kaltea sortu izana. Horregatik, zezen suzkoa bezalako ikuskizunak ospatzeak herritarrei ekar



diezaiekeen arriskua udalak hartu behar du bere gain, berak antolatzen eta sustatzen baitu jolas-ikuskizun hori.

Horren ganean, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak -Auzitegi Nagusien etengabeko adierazpenetan- administrazioaren ondare-erantzukizuna onartu du, ikuskizun publikoak ospatzearen ondorioz lesioak eragin direnean. Hauxe zioen Auzitegi Gorenak 1999ko maiatzaren 25eko Epaian: *"la Administración asume la responsabilidad derivada de los riesgos por ella creados. Así, en la Sentencia de 13 de septiembre de 1991, que cita otras anteriores, puede leerse lo siguiente: 'Un Ayuntamiento puede organizar una feria, reglamentando y autorizando, en su competencia municipal esencial e indeclinable de policía de seguridad en este tipo de festejos, instalaciones que necesariamente implican, dada la misma reglamentación municipal, un alto porcentaje de riesgo, que la Administración municipal asume por entender que ello es necesario para mantener una determinada tradición popular, pero estas razones no le eximen en ningún caso de asumir también una eventual responsabilidad por los daños que puedan derivarse de esa actividad que organiza y patrocina' (ikus Auzitegi Gorenaren epai hauek: 1986ko abenduaren 18koa, eta 1987ko maiatzaren 27koa eta azaroaren 24koa)".*

Era berean mintzo da Auzitegi Gorena 1997ko abenduaren 15eko Epaian, 6. oinarri juridikoan: *"La naturaleza objetiva de aquella responsabilidad de las Administraciones Públicas, que constituye un principio cardinal en el régimen administrativo tal como lo regula la Constitución, debe ser exigido con especial rigor cuando se proyecta sobre actividades que son susceptibles de poner en riesgo no sólo la propiedad, sino otros bienes constitucionales de la mayor importancia, la vida y la integridad física de las personas, como son las fiestas populares en las que concurren especiales elementos de riesgo. Los Ayuntamientos están obligados entonces a extremar su responsabilidad para prevenir acontecimientos luctuosos y, por ende, a responder patrimonialmente cuando las medidas adoptadas se han revelado ineficaces"* .

4. Laburbilduz, gure ustez, bi arrazoi nagusik eragin zuten (...)ren berokia erretzea: kultur ekintzak eta ikuskizunak antolatzeko zerbitzu publikoaren jardunak, batetik, eta segurtasuna behar bezala ziurtatzeko betebeharra ez bete izanak, bestetik. Horregatik, Gasteizko udalak, zerbitzu publiko horren titularenez, sortutako kalteak ordaindu beharko lituzke.



Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak - erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**31/2002 GOMENDIOA, irailaren 9koa, Gasteizko udalari egina**

Baliorik gabe utz dezala 2001eko azaroaren 21eko Erabakia, (...)k aurkeztutako erreklamazioa atzera bota zuena. Izan ere, udal horrek bere gain hartu behar ditu zezen suzkoaren ikuskizunak dakarren arriskuaren ondorioz sortutako kalteak.

Gero, dagokion administrazio espedientea bideratu ondoren, beste erabaki bat har dezala, kexagileari eragindako kalteetan udalak duen ondare-erantzukizuna onartzeko.